


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2021-06-25 / 697. ZENBAKIA / 17. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Gabirondo eta Zalduaren arteko desafioa

20 kanaerdiko, aurrena, eta horiek bukatuta, segan bi orduko mugaraino. Kilo gehien batzen dituen, garaile. Gabirondo serio-demonio aritu da prestaketa lanetan / 10-11

**2022ko Andoaingo Udal aurrekontutik 250.000 euroko partida parte hartze prozesuaren bidez gauzatuko da / 7**

**Selektibitatea egin duten Andoaingo eta Urrietako ikasleen lekukotza / 8-9**

**Urrietako Idiazabal kalean bizikletak konpontzeko negozio berria zabaldu du Jon Iturria urrietarrak / 12**

**Chill Mafia, Dupla eta Urdangarin zuzenean ariko dira Andoainen, "Kale Giroan" zikloaren baitan / 3**



## Azken emanaldia

Susana Cencilloren Soinuak musika akademiak agur esango du, saio bereziarekin / 3



### Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urrietan

<b>TRASTELEKUAK</b>	<b>GORDELEKUAK</b>
<b>44€</b>	<b>97€</b>
2 m <sup>2</sup> / BEZa barne	5 m <sup>2</sup> / BEZa barne

- ASKOTARIKO TAMAINA ETA AZALERAK
- BIDEOZAINZA 24 ORDU
- SARBIDE ETENGABEA

**605713127**

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA  
Bulegoa: Musbles Ibarbe  
[barne.eus](http://barne.eus)



Nabarmenezkoa da bi kontzertuetan andoaindarrak eta urnietarren parte-hartzea. Zutik: Joxe Mari Oiartzabal, Iñaki Aizpurua (txistua), Joxe Ramon Berrondo (fliskornoa), David Belber (tronboia) eta Imanol Iribarren (tronboia). Makurtuta: Manex Olasagirre (perkusioa), Oier Parada (saxoa) eta Joxe Ramon Berrondo (fliskornoa). Eneritz Jauregi (flautina) falta da argazkian. Eskuineko argazkian Hernani eta Donostiako kontzertuetako eragile nagusiak. Zutik, Jorge Pacheco Hernaniko Udal Musika Bandako zuzendaria eta Jon Ansorena Donostiako Txistularien Bandako musikaria eta komunikazio arduraduna. Eserita, Joxe Mari Oiartzabal zuzendaria eta Jose Ignazio Ansorena Donostiako Txistularien zuzendaria. AIURRI

# Oiartzabalen esanetara

Hernaniko Udal Musika Bandak eta Txistularien Bandak eta Donostiako Udal Txistularien Bandak elkar hartuta kontzertu bikoitza eta berezia eskainiko dute, datozen egunetan. Joxe Mari Oiartzabal musikariaren laguntza izango dute, bietan

## Xabier Lasa ANDOAIN

Hernaniko Atsegindegi plaza estalian ekainaren 24an, eta Donostiako Trinitate plazan ekainaren 27an. Horiexek dira eskualdeko musikari hauen bi hitzordu nagusiak. Kontzertuak bi atal izango ditu. Horietako bat Txirri, Mirri eta Txiribiton euskal pailazo aitzindariaren kantutegi hainbat piezek osatuko dute, eta horietan zuzendari lanetan ariko da Joxe Mari Oiartzabal musikaria. *Txirri, Mirri eta Txiribiton; Paristik natorren; Behin edo behin; Allakuidaos; Lagunen itzala; Barre egin; eta Zapi zuria* eskainiko dituzte. Pailazoaren kantutegi klasikoaren parte dira. Andoaindarrak abesti horien partiturekin moldaketa lanak egin ditu,

musika bandako instrumentu guztiek jotzeko modura egokituz. Ez da txikia hartu duen lana, baina hala eta guztiz ere Oiartzabal pozik geratu da: “Gogo onez hartzen dudana eginkizuna da abestiak moldatzea, are gehiago aspaldiko bidelagunak ditudan pailazoaren ondarea eskuartearekin edukita. Ikaragarria da zenbat eta zenbat kantu bikain sortu zituzten, zein baino zein doinu politagoarekin! Zazpi abestiz osatutako *Suit* bat moldatu dugu kontzerturako, baina nahi izanez gero, beste hogeitaz *suit* osa ditzakegu! Gainera, *suit* horietan ere zuzendari lanetan jardungo dut. Jorge Pachecok luzatu dit gonbidapena, eta pozez zorutzen nago. Opari bat izan da niretzat. Donostian eta

Hernanin halako musikari bikainak zuzentzea ohore handitzat jo behar dut”.

## Euskal barrearen bidetegiak

Ez da ohikoa izaten haurrentzat pentsatuta dauden abestiak musika bandek interpretatzea. Pachecok azaldu du pailazoaren doinuak kantutegi tradizionalagoarekin uztartu izanaren zergatietako bat: “Hurrengo urtean 50 beteko dira Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak euskal plazan ezagutzera eman zirenetik; orduz geroztik, haurrei barre eragiteaz gain, euskal musikagintza aberastu dute, eta horrexegatik, aitortza merezi dutela iruditu zaigu. Eta zer hobea euren musika zabaltzea baino?”.

Hiru pailazoak 1972an azaldu ziren lehenbiziko aldiz, jendarean. Hasierako garaian haiek Kixki, Mixki eta Kaxkamelon izenekin. Frankismo garaian gogor jarraitzen zuten gaztelaniaren aldeko kultur inposaketak, eta gizarteko makina bat arlotan bezala, haurren aisialdian ere nabarmena zen euskaraz barre egiteko premia. Gutxira, izen artistikoa betiko finkatuko zuten Txirrik (Xabier Otaegi), Mirrik (Jose Ignazio Ansorena) eta Txiribitonek (Txema Vitoria).

Geroztik, ehunka plaza eta azotan sortarazi dute irribarra. Ibilbide luze eta oparo horretan, 22 disko kaleratu dituzte, ehundik gorako abestien altzorra pilatuz, eta makina bat belaunaldien soinu banda osatu. Gainera, Euskal Herriko bazterrak ondo zapaltzeaz gain, ETB1n ere zenbait programa egin izan dituzte; hala nola, *Don Don Kikilikon*, *Funtzioa*, *Barre busa* edo *Altza porru!*.

Andoaindarrak aspaldi eza gututako lagun zaharrak dituzten pailazoak: “*Funtzioa* telebista saioan (1981-1991) eurekin lanean aritu nintzen. Euskal Herriko zein kanpoko musikari famatuak gonbidatzen zituzten programan zuzenean jo zezaten, eta atzean edukitzen zuten musika bandako zuzendaria izaten nintzen neu”.

## Bi kontzertuetako erreperitorioa

- Oleskari zaharra (Jose Olaizola).
- Haika, Mutil (Jose Ignazio Ansorena).
- Pozaldi (Felix Sistiaga).
- Txistulariak (Victor Zubizarreta).
- Rapsodia vasca (Vicente Beobide).
- Errenka (Jagoba Astiazaran).
- San Juan Zortzikoa (herri doinua).
- Mendirik mendi (Jose Antonio Erauskin).

## Pailazoaren kantutegia:

- Txirri, Mirri eta Txiribiton.
- Paristik natorren.
- Behin edo behin.
- Allakuidaos.
- Lagunen itzala.
- Barre egin.
- Zapi zuria.

## BI EMANALDIETAN TARTEA ESKAINIKO DIOTE TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITONEN KANTUTEGIARI



Urkiren emanaldia igandean izango da Ondarretan, 12:00tan hasita. AIURRI

## Herriko taldeen emanaldiak San Juan giroko egunetan

Urki dantza taldea, Soinuak musika eskola eta Bakartxoren akademiko ikasleak taulagainera igoko dira

### Erredakzioa ANDOAIN

Ikasturtea ez ohikoa izan da Andoingo kultur eragileentzat. Gutxi-asko, gehienek ikasturteari amaiera txukuna eman nahi izan diote. San Juan jaien baitan, Urki dantza taldearen eta Joseba & Bakartxo dantza akademiaren

parte hartzea ohikoa bilakatu zen. Aurtengoan ez da jairik izango, baina haren ordezkotzat kultur programazioan bi taldeek agerpena egingo dute. Baita Soinuak musika eskolak ere. Ibilbideari amaiera emango dio, gainera, igandeko emanaldian.



Soinuak taldearen emanaldia larunbatean izango da Basteron, 11:30tan hasita. AIURRI



Joseba eta Bakartxoren dantza akademiako ikasleak Basteron izango dira. AIURRI



Gatibu. GATIBU

## Itzal handiko musikariak, datozen egunetan

Gatibu, Mikel Urdangarin, Chill Mafia eta Dupla taldeak ariko dira datozen egunetan

### Erredakzioa ANDOAIN

Jendetzaren aurrean aritzera ohituta daude Gatibukoak eta Mikel Urdangarin. Oraingoan, ordea, kopuru mugatuarentzat ariko dira zuzenean. Eta artisten aurrean ikusle saiatuak, sarrera eskuratzeko ilara luzeak pairatu dituzten andoaindarrak. Pandemiaren egoera hobetzen doala ikusita, saio bakoitzaren aforoa gehiago handitzea erabaki du Udalak. Ibilbide luzeko musikariez gain, azken boladan bogan dauden Chill Mafia eta Dupla taldeak ezagutzeko aukera izango da. Udan zehar emanaldi eta ikuskizun gehiago izango da.



Mikel Urdangarin. NAIZ



Susana Cencillo. AIURRI

## Soinuak Musika Eskolaren agurra, Bastero Kulturgunean

Susana Cencillok zuzentzen duen musika eskolak 21 ikasturteko zikloari amaiera emango dio, ekainaren 26an

### Erredakzioa ANDOAIN

Akordeoa eta beste hainbat instrumentuetan trebatzeko akademiak atek itxi ditu, ikasturteari amaiera ematearekin batera. Ekainaren 26an, goizeko 11:30ean hasita, kontzertu batekin esango

dute agur. Aurreko egunetan gutuna zabaldu zuen akademiak. Besteak beste, eskerrak emateko: "Gure ondoan modu batean edo bestean egon zaretzen guztioi, mila mila esker". Zuzeneko emanaldiarekin agur esango dute, beraz.



AIURRI

## Xabier Ansa gogoan

Inoren Ero Ni taldeak Andoainean du abiapuntu eta oinarri. Kantari lanetan aurkezpenik behar ez duen Eneko Abrego "Okene" aritzen da. Larunbatean ospatu zen Andoingo Rock Jaialdiko protagonista nagusietakoa izan zen. Emanaldian zehar aitortza sentitua egin zioten aspaldian mendian galdu zuten Xabier Ansa andoaindarrari.

## POSTONTZIA

PODEMOS AHAL DUGU ANDOAIN

## SOS, N-1ean zaratarik ez!

Andoingo Podemos Ahal Dugu zirkulutik, erabateko babesa adierazi nahi diogu udalerriko herritarrek bultzatutako sinadura bilketa-kanpainaren ekimenari, Gipuzkoako Foru Aldundiari irtenbide bat eskatzeko N-1 errepidetik pasatzen diren ibilgailuen trafikokoak sortzen dituen eragozpenen arazoari.

Uste dugu hogeita hamar urte baino gehiago daramatzagula ibilgailuek eragindako trafikoa- ren zaratak jasaten, eta ezin dizkiotela leihoak ireki errepide horri. Horrez gain, kontutan hartu behar da konparaziozko bidegabekeria dela eskualdeko udalerrri bakarra izatea milaka ibilgailuk (horietako asko tona askoko kamioiak) etxebizitzetatik metro gutxira pasatzeak sortzen duen soinu-inpaktua minimizatzeo oztopo akustikorik ez duena.

Hori dela eta, herritarroi eskatzen dizuegu egoera jasanezin honengatik kaltetuekiko enpatiarik handiena erakusteko, eta horretarako prestatutako edozein lekutan sinadura estapatuz babesa emateko.

Herri honen ezaugarri nagusia zein den erakutsi besterik ez dugu egingo, eta erakundeetatik aldarrikapen zuzenak lortuko ditugu.

## POSTONTZIA

BASO BIZIAK PLATAFORMA

## Baso biziak

Azken hamarkadetako basogintza industrialaren eraginez tonaka lur emankor galdu dugu eta urak eraman ez duena, guztiz higatuta eta ahulduta ikus daiteke nonahi. Larrialdi klimatikoan bete-betea sartuta gauden aro honetan ezinbestekoa da Administrazioen erabakiek ingurumen-eragin horiek kontuan izatea eta urrats garbiak ematea, basogintzaren eredu arriskutsu hau aldatu eta bioaniztasuna berreskuratzeko bidean jarriz..

Orain arte, EAEn, gauza bat esan eta bestea baimentzen aritu dira agintariak; horren adibiderik nabariena da pinuaren gaixotasunari eukaliptoaren landaketarekin, erantzutea. Hor ditugu, adibidez, Deba bailarako, Hernaniko, Aiaraldeko, Urdaibaiko eukalipto-landaketa berriak, eta baita Foru Aldundiak bereak dituen lurretan egindako monolaborantzak ere. Monolaborantzan oinarritutako eredu industrial honek sortu dituen eta sortuko dituen kalte ekologikoak kuantifikatzea, eta ordainaraztea eskatzen dugu.

Testuinguru horretan, ikusita aldaketak beharrezkoak eta posibleak direla, hainbat herritan baso biziak izeneko talde anitzak sortzen ari dira. Hainbat maila administratibotan eragin nahi dugu: Udaletan, mozioen bidez erabaki propioak har ditzaten; hemendik abiatuta eta Udalen bitartez Aldundietan, eta azkenik, Jaurlaritzan. Dirudienez, presio sozialaren eraginez emaitza ja-



Manifestuaren aurkezpena egin zuten eguna. BASO BIZIAK

sozten hasi gara eta bide horretan aurrera egitea ezinbestekoa ikusten dugu.

Krisi hau globala da, baina guri erantzun lokalak ematea dagokigu, bai antolakuntzan zein alternatibetan. Horregatik, une honetan arreta EAEn jarrita badugu ere, ezinbestekoa ikusten dugu Euskal Herriko gainerako administrazioekin zein erakundeekin harremanetan jartzea beraien baso-politikak eta esperientziak ezagutu eta partekatzeko. Gure asmoa da, gainera, baso biziaren aldeko dinamikan

bidelagun izan ditzakegun edozein talderekin harremanetan. Guztiok gara beharrezkoak.

Bestelako basogintza-eredu bat bultzatu nahi dugu, baserritar, lurjabe, herritar eta Administrazioen artean, elkarlanean eraikitakoa, monolaborantzatik kanpo. Keinu bat, gonbidapen bat egin nahi diegu baserritar eta lurjabe orori gurekin batera bioaniztasunean, agroekologian, abeltzaintza ez intentsiboan eta jasangarritasunean oinarritutako basogintzan urratsak eman ditzagun. Herritarrei ez ezik,

administrazioei ere badagokie trantsizio horretan pizgarriak jartzea, hitzetatik ekintzetara pasatuz. Basogintza-eredu jasangarriari begira jarri behar dira diru-laguntzak, bertako basoak berreskuratu eta haiengandik jasotako onura sozialak (zerbitzu ekosistemikoak) sarituko ditue- na epe motzeko interes ekonomiko pribatuen ginetik. Aldundiek dute horretarako eskumena eta ardura.

Egungo basogintza-ereduak eragiten dituen ingurumen-eraginetara itzuliz, gogoratu behar dugu EAEko Administrazioak berak eskatuta, 2018an, ikerketa zientifiko bat edin dutela EHUK eta Aranzadi zientzia-elkartek elkarlanean, Arturo Eloseggi ekologia katedradunaren gidaritzapean. Ikerketa zientifiko horrek emandako emaitzak kontuan hartuta, eta gertuko lurraldeetan eukaliptoak ekarri duen hondamendi ekologikoa gurean areagotu ez dadin, ozenki eskatzen diogu Jaurlaritzari eukaliptoak espezie arrotz inbaditzaileen zerrendan sar dezan. Bitartean eukaliptoari moratoria jartzea ezinbestekoa da, bere hedadura gelditu eta egun landatutako eremuetan atzerabidean jartzeko.

## BESTELAKO EREDU BAT BULTZATU NAHI DUGU BASERRITAR, ADMINISTRAZIO ETA LURJABEEN ARTEAN

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketzailea:** Maddi Trutxuelo.

**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Banatzaleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagasetta (Urdieta).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zerua Multimedia.

**Aiurri eskuragarri:** Ebeze ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urdieta, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:** Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ**

ALIAITUAK: **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: **Bikain**

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.**


## Kasu positiborik gabeko egunak bi herrietan

Intzidentzia-tasa metatua 20koa da Andoainen; Urnietakoa nabarmen jaisten ari da

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Ekainaren 14an Andoainen bi kasu positibo agertu ziren, eta Urnietan hiru. Geroztik, egunero-egunero Aiurri.eus-en agertzen den grafikoan 0 da bi udalerritan agertzen den datua. Zinez datu ona da hori, eta horri esker Andoain egoera idealean aurkitzen da. Ereku berdean sartuta da, eta intzidentzia-tasa metatua 20koa da. Azken hilabeteetako joerarekin bat datorren egoera da, Andoain Gipuzkoako batz bestearen azpitik ibili baita udaberrian. Erabat ezberdina da egoera Urnietan. Han positibotasuna handiagoa izan da, ekainera bitarte luzatu dena. Horregatik du 128,85ko intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetako positibotasuna kontutan hartzen baita. Egoera, halere, hobea da eta azken egunetako joerari esker Urnieta laster sar liteke 60 azpiko eremu idealean.

Birusa kontrolatuta dagoela pentsatzeko zantzuak daude, gizarte bizitza are gehiago arintzea erabaki denean. Zerikusi zuzena du txertaketak, adinekoen populazioan nabarmen jaitsi baita kutsakortasuna. Pixkanaka, txertaketaren zabalkundearekin, egoera on hori adin gutziara zabaltzen ari da.



URKO VALLEJO

## Kasu positiboaren bilakaera Andoainen eta Urnietan



URKO VALLEJO

## Astez asteko intzidentzia

### ANDOAIN

- **Ekainak 16-21:** 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 20,02.
- **Ekainak 3-15:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 86,74.
- **Ekainak 2-8:** 10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 173,47.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 180,14.
- **Maiatzak 19-25:** 11 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 93,41.
- **Maiatzak 12-18:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 120,10.
- **Maiatzak 5-11:** 15 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 246,86.

### URNIETA

- **Ekainak 16-21:** 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Ekainak 3-15:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 257,69.
- **Ekainak 2-8:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 161,06.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:** 2 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Maiatzak 19-25:** 6 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Maiatzak 12-18:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 241,58.
- **Maiatzak 5-11:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 225,48.



Urnietako  
udala



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN

w w w . a i u r r i . e u s



# Aiurri.eus, unean uneko albistegia




Trafikoa



Azken ordukoa



Egunean Behin



Koronabirusaren gakoak



Kultura



Kirol-albisteak



COVID-19 egunez egun



Argazki-bildumak



Bideo-sorta zabala



Romero, Lainez, Izagirre eta Huitzi parte-hartze prozesuaren aurkezpen ekitaldian. UDALA

## Parte-hartze prozesua abiatu du Udalak

2022ko aurrekontuaren diru-partida bat prozesu parte hartzailearen ondorioz erabakitzea proposatu du Andoaingo Udal gobernu taldeak. 16 urtetik gorako herrikideek parte hartu ahal izango dute

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak 22 milioi euroko aurrekontua du, eta datoren urtean aurrekontuaren partida bat parte hartze prozesuaren ondorioz erabakitakoa izatea nahi dute. 250.000 euroko partida bat da, eta herritarrek datozen egunetan proposamenak aurkezteko aukera izango dute. Kasu honetan udalerrian bizi diren 16 urtetik gorako guztiak. Proposamenak aztertu eta gainerako herrikideek aukeratzeko bidea emango dute baldin eta baldintza batzuk betetzen badira. Besteak beste, "legezkotasuna, toki-eskumena, aniztasunarekiko errespetua eta interes orokorra". Parte-hartzea sustatzeko Andoaingo Udalak "Andoain. Erabaki Orain" izeneko komunikazio kanpaina martxan jarri du.

### Inprimakia

Udalak inprimaki bat prestatu du eta on line edota paperean aurkezteko aukera izango da.

Etxebizitza guztietara iritsiko da eskuorria, eta Andoain.eus bidez edo okasiorako jarritako buzoitan aurkeztu ahal izango dira.

- Andoain.eus. Prozesuari buruzko informazioa eta inprimakia webgunean aurki daitezke.
- Buzoiak: Udal eraikinetan ipiniko dituzte proposamenak aurkezteko ontziak: Ataria, Allurralde, Ambrosia Olabide, Bastero, Udaltzaingoa, Urigain Etxea, Arrate, Gazte lokala, Liburutegia, Ludoteka.

Aurkezpen ekitaldian hitza hartu zuten Lainez alkateak eta Izagirre alkate-ordeak. Lainezek deialdiaren irekitasuna nabarmendu zuen: "Gastu publikoari

**"ANDOAIN. ERABAKI ORAIN" KANPAINAREN BITARTEZ PARTE HARTZE PROZESUA SUSTATUKO DUTE**

buruzko erabakiak hartzea herritarrei zabaltzeko helburu argiarekin sortu da". Izagirrek 2019-2023 gobernu-programan jasotakoari men egiten dion egitasmoa dela berretsi zuen: "Andoain Elkarlanean dinamika barruan kokatzen da, herritarrekin dugun interakzioa hobetzea helburu duena".

### Lau urratsetan banatuko da parte hartze prozesua

- Ekainak 18-Uztailak 18: Proposamenak aurkezteko bidea zabalduko dute, telematikoki edo buzoi berezietan aurkeztuz.
- Uztaila-Iraila: Udal-teknikariez osatutako batzorde batek aztertuko ditu jasotako proposamenak.
- Urria: Aukeratutako proposamenak hautatzeko bozketa prozesua abian jarriko dute.
- Azaroa: Bozka gehien jasotako proposamenak 2022ko Udal aurrekontuetan txertatuko dituzte.



EH Bilduko Udal taldea, Goikoplazan. AIURRI

## Agintaldiaren erdialdera iritsita, balorazioa egin du EH Bilduk

EH Bilduren hautagaitza izan zen bozkatuena. PSE-EE eta EAJ-PNVren gobernu noraezean dabilela uste dute

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoni Alvarez buru den koalizioarentzat bi urte hauetako balorazioa "txarra eta kezagarria" da: "Hasierako hilabeteetan noraezean aritu ziren, erronkari neurria hartu ezinik, departamentuen banaketa egin eta bi udal gobernu baleude bezala hasi ziren lanean, baina proiekturik gabe, norabiderik gabe". Horren aurrean, EH Bilduko udal taldeak eginiko lana balioan jarri nahi izan du Alvarezrek: "Balorazioa oso positiboa da, lehen egunetik herritarren babes zabala jaso genuen, eta herriko elkarte zein

norbanakoekin izan dugun harremana handia izan da. Pandemiaren zehar ere gure ekarpena egin dugu, eta uste dugu horri esker gauza askotan egindakoa hobetu dela, adibidez merkataritza eta ostalaritzari emandako laguntzetan. Gure proposamenak baztertzeko joera bat dute gobernuan, baina gauzatzen ari diren gehienak guk hasitakoak edo proposatutakoak dira. Adibidez; Zerbitzuetako pabiloia Illarremendin, Mimendiko arrapala edo Goiburuko plaza eraberritzea". Andoainek beste zerbaitekin behar duela uste du.



UDALA

## Ibili Andoain, Garagoriraino

Ikasturteari amaiera eman zioten, bisitaldi gidatuarekin. Manuel Larramendi jaio zen Garagorri baserrira hurbildu ziren, azken egunean. Bertan, Larramendi Kultur Bazkuneko Jon Unanuek Aita Larramendiren ibilbidea azaldu zuen. Udalak M<sup>re</sup> Carmen Gonzalez, Maria Caridad Bernal eta Maria Castillejo herrikideei aitortza berezia egin zien.



Selektibitatean dozenaka lagun elkartzen dira. RTVE

# Selektibitatearen osteko egunak

Ez da ikasturte erraza izan, ez. Pandemiak bete-betean eragin du ikasketetan, zama fisikoa ez ezik, psikologikoa ere sortzeraino. Baten bati baino gehiagori tokatu zaio uneren batean etxetik ematea jarraipena bere ikasketa-prozesuari

**Alba Cabrera Jauregi / Mikel Arberas** ANDOAIN-URNIETA

Gainera, ikasle asko eta asko dago selektibitate azterketen biharamunean. Uxue Iguaran eta Unax Iturrioz urnietarrak buru-belarri aritu dira lanean unibertsiterako sarbide-azterketetan: Hernaniko institutuan ikasi du lehenak; Donostiako Antigua Luberrin, bigarrenak. Ildo beretik, Iker Uria Andoaingo Aita Larramendi Ikastolako ikasleak gogotik eutsi dio selektibitateari, baita Jaione Mayoralek ere, batxilergoa Leizaran ikastetxean egin ostean. Itxaro Aizpurua La Salle Berrozpeko ikasleak talde lana nabarmendu du.

**Atzera begira jarrita, zein nolako ikasturtea izan da?**

**Jaione Mayoral:** Ikasturte hau oso gogorra izan da alderdi guztietan. Izan ere, batxilergoko bi-

garren maila zaila izan da eta selektibitatea gertu egotearen presioa edukitzeaz gain, Covid-aren egoerak ez du lagundu. Hilabete horietan zehar ezin izan dugu gure lagunekin eta familiarekin egon gustatuko litzaiguen moduan, eta azken finean, horrek psikologikoki asko eragin digu.

**Unax Iturrioz:** Orokorrean nahiko gogorra. Hasiera erraza izan zen, baina, denborak aurrera egin ahala, selektibitatea geroz eta gertuago genuen, eta horrek presio handia eragin zidan.

**AURREKO EGUNETAN IKASLE ASKO BURU-BELARRI ARITU DA SELEKTIBITEA PRESTATZEN**

**Iker Uria:** Oro har ondo joan da ikasturtea. Egia da, memento batzuetan lan handia egin behar izan dugula, baina atsedendiek tartekatuz kurtsoa ongi eraman dut aurrera.

**Uxue Iguaran:** Ez da bat ere erraza izan; aitzitik, oso mugitua izan delakoan nago; aurreko urteekin alderatuz gero, oso bestelakoa izan da: zenbaitetan, etxeratu beharra; beste hainbaitetan, online klaseak... Neke handia eragin digu koronabirusaren harira sortutako ezjakintasunak, eta horrek harreman zuzena du ikasketetan.

**Itxaro Aizpurua:** Ikasturte oso bitxia izan da, ezberdina. Ikas-kide eta irakasle berriekin, ego-ra berezi batean... Gertakari ugariko garaia izan da. Jakina den bezala bigarren batxilergoa ez da ikasturte erraza, baina hala ere konturatu gabe pasa

zait. Ohartzerako hautaprobarekin egin dugu topo, gure lehen etapa honi amaiera emanez, esfortzu eta lan gogorra egin ostean.

**Koronabirusak oztopo handiak eragin al ditu klaseko dinamikan edo zuen jardunean?**

**J.M:** Klaseko dinamikan ez du oztopo handirik eragin klase guztiak presentzialak izan direlako gure ikastetxean; zorte ona izan dugu alde horretatik. Hala ere, egia da norbait konfinatuta egotean, etxean egon daitezkeen konexio arazoan ondorioz, pertsona horiek klasearen erritmoa galdu eta klase kanpoko orduetan berreskuratu behar izan dute.

**Unai I.:** Zorte handia izan dugula uste dut. Kurtso osoan klaseak aurrez aurrekoak izan dira eta horrek ikasketak asko errazten ditu. Gainera, koronabirusa zela eta, taldeko lanen kopurua murriztu da, alegia, nork bere zereginak egin ditu (ez dugu ia talde-lanik egin). Hori horrela, lagungarria izan da dinamika hori, selektibitatea (bakarrik egin beharreko azterketak dira, azken finean) prestatzeko inguru aproposa irudituz zait.

**I.U:** Egia esan, espero nuena baino hobekiago joan da ikasturtea. Musukoa eta segurtasun-distantzia kenduta eramangarria izan da; hau da, urria-azaroa aldean konfinatu behar izan genuen, baina, egun hartatik aurrera, ondo joan da guztia. Beste ikastetxe askorekin alderatuta, konfinamendu bakarra eduki izana baikorra dela esango nuke.

**Uxue I.:** Nire ustez, batez ere, talde-lanak oztopatu ditu pandemiak, ikasketei dagokionez: nahiko aldrebesa gertatu zaigu gure jardunari jarraipena ematea norbait konfinatzen zutenean. Are gehiago, zeu bazinen konfinatu beharreko kidea, ikasgaien online bidezko jarraipena egin behar zenuen, eta atzerapen handia eragin du prozesuan horrek. Nork bere erritmoa harapatu behar izan du.

**IZURRITE GARAIKO IKASTURTEAN ZAILTASUN ERANTSIA IZAN DUTE IKASLEEK**

**I.A:** Kurtso hasiera egoerara moldatzeko aldi zailena izan zen. Baina klaseak etxetik jarraitu ahal izateko erritmoa segituan hartu nuen. Ez dut uste koronabirusak hainbesteko oztoporik eragin duenik. Ez da kurtso aproposena izan hau gertatzeko, noski ezetz, baina guztion artean elkarri lagunduz nolabaiteko narmaltasunez aurrera eramatea lortu dugu.

**Selektibitatea izan duzue berriki, presio handia eragin al dizue azterketaldia?**

**J.M:** Irakasleek etengabe hitz egiten dute selektibitateari buruz batxilergoko lehenengo kurtsoetik, eta haiek konturatu gabe presio handia jartzen digute ikasleoi. Gainera, batez ere bigarren kurtsoan, konturatzen zara unibertsitatean nahi duzuna ikasteko, gutxieneko nota bat behar duzula, eta momentu horretan ohartzen zara azterketa horien mende dagoela zure etorkizuna. Horren ondorioz, gaitegi guztia jakin arren, selektibitatearen egunak iristen direnean nerbioak asko nabaritzen dira. Beraz, bai, hiru egun horietan presio handia sentitu nuen, baina, batez ere, lehenengo egunean ez dakizulako zerekin egingo duzun topo. Hala ere, azterketak ez ziren izan klasean egindakoak baino zailagoak, beraz, ez dela hainbesterako izan.

**Unai I.:** Nire kasuan unibertsitate sartzeko ez nuen nota alturik behar, baina hala ere beti dago ezjakintasuna, eta nolabait besteen gaintik geratu beharrak presio handia eragiten du.

**I.U:** Selektibitateari dagokionez, beti sortzen da urduritasun puntu bat. Hala ere, nire kasuan, ez nuen presio askorik; izan ere, egin nahi ditudan ikasketetarako ez da nuen nota altua behar. Esanak esan, ahalik eta nota altuena ateratzeko helburua jarri nion nire buruari.

**Uxue I.:** Ez dut presio handirik sentitu, izan ere, ez nuen aparteko nota alturik behar. Hala ere, selektibitatearen aurreko egunetan autokonfinatzea gomendatzen ziguten, eta horrek beldurra sortu digu, kezka.

**I.A:** Hautapropa etorkizunera-ko erabakigarria izan daitezkeen azterketen multzoa da, norberak duen helburua lortu ahal izateko, hortaz, presioa nabarmena da, bai. Bakoitzak egin behar





Jaione Mayoral andoaindarra. AIURRI




Unax Iturriotz urnietarra. AIURRI



Iker Uria andoaindarra. AIURRI



Uxue Iguaran urnietarra. AIURRI



Itxaro Aizpuru andoaindarra. AIURRI

## SELEKTIBITATEAN PRESIO HANDI SENTITU NUEN, BATEZ ERE LEHEN EGUNEAN

duenaren arabera, norbanakoak ez du berdina egingo eta unibertsitateko gradu bakoitzak ere nota ezberdina eskatzen dute eskaintzen diren plazen arabera. Nota ona lortzeko eta egindako esfortzua erakusteko presioa ere badago.

### Egin al duzue azterketa ondorengo ospakizunik?

**J.M:** Ez, ez dugu ezer berezirik egin. Dena den, Koronabirusaren egoera hobetzean, ospakizun hori eta egin gabeko ikas bidaia egitea espero dugu.

**Unai I.:** Bai! Kurtso osoa sagardotegi batera joan ginen azterketak bukatu zirela ospatzera. Udarrari hasiera ederra eman genion!

**I.U:** Azterketen ostean lasaitasuna izan zen nagusi. Lagunekin eta klasekideekin sagardotegia edota afaritxo bat egiteko baliatu genuen ikasturte amaiera.

## USTE NUENA BAINO NOTA ALTUAGOA ATERA DUT, BERAZ, OSO GUSTURA NAGO

Ikas bidaia dagokionez, berriz, lagun batzuekin kanpora joateko asmoa daukat.

**Uxue I.:** Bai. Noski, ez aurreko urteetan bezala, baina saiatu gara zerbait egiten, jakina: azterketak bukatu berritan, gogo bizia duzu lagunekin planak egiteko.

**I.A:** Iragan urtetan kurtso osoko eta irakasleekin egin ohi den bazkaria ezin izan dugu egin, zoritxarrez. Bakoitzak bide desberdina hartuko du hemendik aurrera eta aldi honi ez diogu behar bezalako amaiera eman. Baina udan zehar ikaskideen artean zerbait antolatzea espero dugu.

**Ikas bidaia gabe gelditu zarete... Triste?**

**Unai I.:** Ikasturte honen amaierarako koronabirusa dagoeneko iraganeko gauza izango zela pentsatzen nuen lehengo urtea-

## IKASTETXEAN KONFINAMENDU BAKARRA EDUKI IZANA BAIKORRA DELA ESANGO NUKE

ren amaieran, udara ondoren desagertuko zela-edo... Alabaina, ikasturteari ekin genionean, oraindik gurean zegoela ikusita, desagertzeko asmo gutxirekin, ikas-bidaia egitea ezinezkoa izango zela ulertu nuen; beraz, ez nago oso triste.

**Uxue I.:** Benetan tristea izan da. Egia esanda, bidaia egingarria izango zela pentsatu nuen ikasturte hasieran, baina, egunak joan egunak etorri, argi gelditu zitzaigun ezetz. Dena dela, egoerara ohitu garenez gero, ezin duzu beste ezer egin, eta espero gneuen ez egitea bidaia.

**I.A:** Pandemia honek ez du ikasbidaien kontua guztiz mugatu. Pixkanaka neurriak leuntzen joan dira eta beste urtetakoa bezala izango ez den arren, badaude aukerak amaiera hau behar bezala ospatzeko. Gogo behin ez da falta. Betiere

## ESPERO DUT UNIBERTSITATEKO KLASEAK AURREZ AURRE JARRAITU AHAL IZATEA

kontu handiagorekin ibili behar da, argi baitago ez dela betiko egoera.

### Aurrera begira, zein asmo? Gustora emaitzarekin? Zer egingo duzue datorren ikasturtean?

**J.M:** Opor onak pasa ondoren, nire asmoa hemen gelditzea da, Andoainen. Izan ere, dena ondo badoa, Adimen Artifizialeko gradua egitea espero dut Donostiako Informatikako Fakultatean.

Selektibitateko emaitzak hobeto espero nituen baina gradu horretara sartzeko gutxieneko nota baino gehiago lortu dudanez, pozik nago emaitzarekin.

**Unai I.:** Espero nuena baina nota altuagoa atera dut; hortaz, gustora nago emaitzarekin, bai! Datorren urtean Donostian Zuzenbidea ikasteko asmoa dut, EHU-n.

## ASKOK UNIBERTSITATEKO BIDEA HARTU DUTE, BESTE BATZUEK GOI MAILAKOA

**I.U:** Udan kotxeko karneta ateratzen saiatuko naiz. Emaitzekin oso gustura nago eta datorren ikasturtean ingenieritza bati ekingo diot, unibertsitatean.

**Uxue I.:** Espero dut unibertsitateko klaseak aurrez aurre jarraitu ahal izatea, online formatuarekin ez naizelako oso ondo moldatzen. Ea egoera hobetzen den eta lasaitzen den guztia. Arterean Historia ikas nahi dut; beraz, etetik kanpo joango naiz bizitzera, Gasteizera.

**I.A:** Mila aukera daude etorkizunari begira. Ikaskideen hartean denetarikoa erabakiak egon dira. Askok unibertsitateko bidea hartu dute eta beste batzuek goi mailako ziklo bat egingo dute. Bide bakoitzaren barruan beste milaka adar daude, norberaren gustuarekin bat egiten duena.



- Astero zozketa: KMO produktuez betetako otarra.
- Saritutakoak: "Leio", "Ainara", "Joxemi", "Izaro", "Jonathan" eta "Odile".





Sei-zortzi hilabetez lanean aritu da urnietarra hilaren 26ko apustua prestatzen. **AJURRI**

# “Diruak ez, lehiakor izateak eraman nau apustua egitera”

**JULEN GABIRONDO** HERRI KIROLETAKO KIROLARIA

Ate joka da ekainaren 26a. Apustu handia Leitzan, Julen Gabirondo segalaria eta Xabier Zaldua aizkolariaren artean

**Andoni Urbistondo** URNIETA

20 kanaerdiko, aurrena, eta horiek bukatuta, segan, belarra moztzen, bi orduko mugaraino. Kilo gehien batzen dituen, garaile. Egin beharrekoak egin dituenaren patxadarekin mintzatzen da Gabirondo urnietarra, Mozotegiko semea. Aizkorak eta plazak, bere lehen apustuak sortzen diote duda, baina fisikoki oso indartsua da, lehiakorra, eta sega besoetan aizkora-ekin galdutakoari buelta emateko esperantza dauka.

**Zer moduz zaude, nola iritsiko zara apustu egunera?**

Neke puntu bat eduki dut gorputzean, egur handia eman baitiot gorputzari azken hilabetean. Azken astean, 10 egunetan lasaixeago, hanketako karga hori arintzen. Ondo iritsiko naiz, puntu-puntu.

**Nolako izan da prestakuntza?**

Prestatzen apustua itxi eta behala hasi nintzen, urria bukaeran edo. 6-8 hilabete aritu naiz. Nahiko ondo eraman dut, gogorrena pandemiaren kontua

izan da, buruari bueltak eman eta eman, ea apustua egitea posible izango ote zen. Hilabete faltan Nafarroara mugitu behar izan dugu, jendea bertaratzeko, eta lekua, belazea bilatu, base-rritarrarekin hitz egin... lan askotxo. Antolakuntza lanak Garikoitz Etxeberriaren esku utzi ditugu, pentatloiko antolatzaille bera, eta eskerrak. Buruhauste asko kendu dizkigu: paperak, pandemiako egoeran gehiago, gu ez baikara oso abilak jardun horretan.

**Apustua adostea ez zen erraza izan.**

Ez, azkenean biok ados geratzeko moduko zerbait hitzartu genuela esango nuke. Ni 15 kanaerdiko ideiarekin joan nintzen, eta bi ordurainoko lana segarekin osatu, baina berak kolpean esan zidan 20 kanaerdikotik ez zela mugituko. Orduan nik proposatu nion egurrak nik jartzea, ze berak eramanez gero akaso ni ondo moldatzen ez naizen egur gogorak aukeratu zitzakeen. Azkenean nik 16 enbor eramango ditut, eta berak lau. Ni aizkoran orduan eta denbora gutxiago aritu, hobe. Segan naiz iaioa.

**Egurraren ezaugarriak asko baldintzatzen du apustua.**

Erabat, ze nik 16 eta berak lau enbor bere gustukoak eraman, niretzat enbor gogorak izanda ere, ba lau enbor dira, eta nola edo hala ba moztzen dituzu. Egurra gogorra edo normala izan, denbora bikoitza pasa dezakezu moztzen. Kanaerdiko bakoitza hiru minutuan, edo sei minutuan ebaki. Pentsa, 20 kanaerdikorekin ze diferentzia egin litekeen. Gauzak normal, segan bere pare jartzeko aukera izango dut, aizkoran berak lortuko duen errenta errekueratu. Norberaren interesak garbiak izan dira. Zalduari nik ahalik eta denbora gehien aizkoran pasatzea komeni zaio, eta niri segan. Erdibideko puntu bat bilatu dugu.

**Belazea Zalduak aukeratu du.**

Bai, hala adostu genuen.

**Eta ze belaze mota da? Berari komeni zaiona aukeratu zuen, noski.**

Niri belardi teknikoagoa komeni zait, moztzen zailagoa, baina bere kargu utzi genuen. Bere gustukoa aukeratu zuen, baina belar erreza da, ardia ibilitakoa, eta karga handia pilatzeko aukera emango duena. Ez da belar konplikatu. 30-40 bat zentimetroko altuera izango du belarrak, ez dago malkar handirik... Mozteko belar ona da, karga emango duena.

**Mingain gaiztoek diote aizkoran ikaragarri ibili zarela entrenatzen. Mozotegi zure etxera trailer batzuk ikusi dira enbor garraioan.**

**"ORDUBETEKO BUELTAN IBILI BEHARKO NUKE AIZKORAN, SEGA LANEAN ARITZEKO"**

Bai, asko ibili naiz, bai. Aizkoran hobetu behar nuen apustu honetan aukerak izateko, eta hala egin dut. Segan ez dut zer hobetu asko, goia jota nabilelako.

**Ez daramazu denbora asko aizkoran.**

Ez. Pasa den urteko otsailean edo hasiko nintzen serio, pentatloiko prestakuntzan hasi nintzen. Pello Telletxea, Hernanin bizi den nafarrarekin ari naiz.

**Nolako da aizkora?**

Beste mundu bat da. Telebistan erraza dirudi, kolpea ematea, baina bi zentimetro oker ematen badiozu, kolpeak ez du ezertarako balio. Punteria behar da, hori aurrena. Segan moztu egiten duzu, kolpea hobe edo txarrragoa izan, moztu egiten duzu belarra. Aizkoran egurra ez. Eta asmatzen ez baduzu, nekatzeko arriskua handia da. Ebakia ere angelu jakin batekin egin behar duzu, hala egin ezean ebakia, kortea itxi egiten delako eta ezin duzulako enborra ebaki. Gero gorputza ibiltzen jakin behar da, aizkora goitik ibili, aizkora-tira, ahalik eta gehien sartu enborrean indarra emateko kolpearri. Horrek, baina, neke handia sortzen du. Efizientzia bilatu behar da.

**Kontuak egingo zenituen, noski.**

Bai, nik ordubeteko bueltan ibili beharko nuke aizkoran, hiru minutu enbor bakoitza, gero sega lanean buelta emateko esperantzarekin.

**Eta berak, 20 kanaerdikoak mozteko zenbat denbora beharko duela uste duzu?**

50 bat minututan egin dezakeela esango nuke. Ordu eta erdi behar badu, hobe niretzat, noski. 10 minutuko bentaja ateratzen badit, aukera izango dut segan. Olasagastik eta Erasunek egingdako apustueta 10-14 minutuko aldea atera zion Olasagastik, eta gero Erasunek buelta eman zion.

**Zein da zure indar gunea?**

Sega, noski. Baina aizkoran ere sufritzeko gaitasuna daukat. Aizkora eta segaren arteko trantsizioak ez dituk onak izaten, kostatzen zait martxa hartzea, gorputza lotuta geratzen zaidalako, baina behin hartuta gaitasuna badut egurrean jarduteko. **Segan oso indartsua zara, teknika ere oso ondo menderatzen duzu.**

Belar etzana, konplikatuagoa egotea hobe izango litzateke niretzat, teknika handiagoa eskatzen duelako. 9-10 urte daromatzen dagoeneko segan, goian ibilitakoa. Zalduak urtebete pasa



Olasagastiren eta Erasunen garaiko apustua dirudi, bi kirolarien ezaugarriengatik. AIURRI

eramango du segan, eta hori, noski, nabaritu egin beharko litzateke. Segan nik gainera aritu behar nuke, baina Zaldua Pentatloiko txapeladuna da, trebea kirol diziplina askotan, eta konfiantzarik ez, sobera.

#### Zer da zailagoa? Segalariak aizkora ikastea, edo aizkolariak segan?

Aurrenekoa esango nuke. Niri zailagoa egin zait, behintzat. Segan, hobeto edo okerrago egin, belarra moztu egiten da. Aizkora gaizki ematen badiotzu, akabo, ez duzu enborra moztzen.

#### Ze eguraldi komeni zaizu azken egun hauetan, eta apustu egunerako?

Azken aste honetan belarra ez da gehiegi aldatuko, dagoeneko, bat edo beste egin. Eta apustu egunerako garbi daukat. Ez dut sargori girorik nahi. Zalduak ere antzera pentsatuko duela uste dut. Eguraldi sanoa eta ateri, jendeak gozatu dezan.

#### Hasiera batean Azpeitiko Añotako belazeetan zen jokatzekoa apustua, baina Leitzara mugitu behar izan duzue, Nafarroara, bertan jendea batzeko arautegia lausoagoa delako.

Bai, eta Euskadin jendea bertaraztea posible izango zen ez genekielako. Nafarroan 500 sartzeko bermea bagenuen, eta orain bikoitza sartzeko baimena daukagu, aire librean egingo den ekintza delako.

#### Zenbat jende bildu beharko litzateke apustuan, zuk eta Zalduak galararik ez izateko?

Mila bat lagun bai, behintzat (40 euro balio du sarrerak). Kontutan hartu nik ja 10.000 euro pasa gastatu ditudala, 7.000 baino gehiago egurrean, eta beste 3.000 prestatzaile fisikoa, dietista, masajista eta beste. Gero bakoitzak 6.000 euro jarriko ditugu jokoan. **Eta konpentsatzen al du tamainako gastuan sartzeari?**

Irabazteko bai. Nik sinatuko nuke irabazi eta dirurik ez irabaztea. Nahiago dut.

#### Zergatik?

Oso lehiakorra naizelako. Apustua ez nuen egin dirua irabazteko, lehiatzeko baizik. Grina hori sentitu nahi dut.

#### Ezagutzen zaituenak hala dio, kementsua zarela, fisikoki oso oso indartsua. Ados zaude?

Ez nuke halakorik esango. Saia-tua bai, hori ziur. Diziplinatua, gauzak serio hartzen dituen, itxurazko lana egiten saiatu beti. Entrenatzaileak agindutako lan-tegi guztietatik ale batzuk baino ez nituen huts egingo zortzi hilabetetan. Zenbatetan lanetik porru eginda iritsi etxera (hodiak jartzen aritzen da obretan), gogorik batere ez entrenamendua egiteko, baina jaiki eta egin. Ondo moldatzen naiz herri kirol-tak diziplinatan, baina beste kirol batzuetan oso baldarra naiz.

#### Zuek, kirolariak, apustu gogoak daukazue, baina jendeak, zaleek ere bai. Sumatzen duzue gose hori?

Bai, asko. Pandemiarekin apustu eta herri kirol jaialdiak oso urriak izan dira, ez da probintzi eta Euskadi mailako txapelketarik egin apenas, eta orain egoera hobetzen hasi dela jende askok galdetu dit, ea sarrerak egongo ote ziren eta beste. Gogoak sumatzen da. Gainera apustua berezia dela esango nuke. Antzeko bi jokatu dira, bikote bera bietan, Olasagasti eta Erasun.

#### Etxekoek zer diote? Ikusi ere ez zintuzten egingo etxean azken urte erdian.

Ez... Lana, merienda pixka bat, lan saioa, afaldu eta bederatzietan etxera, dutxa, afaria eta atsedena, hori izan da nire marta astelehenetik ostiralera. Lan

orduak eta murrizten saiatu naiz pixka bat, indarra gordezteko.

#### Nolako aurkaria da Zaldua? Zein dira bere bertuteak?

Segara ondo egokituko dela esango nuke. Zurrumurru batzuk ere entzun ditut, oso ondo ari dela. Zurrumuruak dira, dena den. Kirolari konpletoa da, fisiko onekoa, lan gogor eta luzeetan ondo moldatzen dena, eta diziplina ezberdinetara ondo egokitzen dena pentatloian ikusi ahal izan genuen bezala.

#### Eta zure handicap-a, baten bat baldin baduzu?

Nire lehen apustua dela. Zalduak asko daramatza, eskarmentua du. Ea nola moldatzen naizen nire lehen apustuan. Aizkorako lehen apustua da, eta 20 kanaerdikoa, lan handia. Itxuraz nire kontra egiten duten faktore batzuk badaude, baina horiek berdintzeko ilusioa eta gogoak daukat.

#### Burua fisikoa bezain erabakigarria izango da horrelakoetan, ezta?

Dudarik ez. Horrelakoetan kirolariak halako krokis bat darama buruan, nola joan daitekeen proba, eta parametro horiek betetzen ez badira erraza da tenplea, pausoa galtzea. Une arriskutsuak dira horiek, kudeatzen jakin beharrekoak. Segi, eta buelta eman. Ondoko laguntzaileak funtsezkoak dira ez etsitzeko, edo gehiegi ez nahaste-lan horretan.

#### Beldurren bat baduzu?

Aizkorari. Lehen plaza, 20 kanaerdiko... Etxean asko aritu naiz, baina plaza plaza da. Bera ni baino azkarrago hasiko da, aldea aterako dit, akaso urduritu egingo naiz... Egoera horrek arduratzen nau pixka bat. Korreetan asmatu, egurra ezin puskaturik ez geratzea, lotuta.

#### Eta Zaldua apustua hausteko asmoarekin abiatuko al da?

Baietz esango nuke. Txikitu ez dakit, gero segan aritu behar duelako. Bizi-bizi hasiko da, ni asko atzeratzen saiatzeko, aizkolaria delako.

#### Irabaztekoan, garaipena nori eskaini ez zaizu ahaztuko, ezta?

Ez, hori inoiz ez. Mikel Garaialde lagunak esaten zidan beti, apustuak egiteko, eta dagoen lekutik sentituko dut bere indarra.

#### Ze mezu emango zenieke urnieterrei?

Apustua ikustera joateko, oihu batzuk bota eta gozatzeko.



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

## Inperioa Asterix eta Obelixen aurka

Abisua eman zuten Giroan, Egan Bernalen garaipenarekin. Eta Dauphine-Liberen, Richie Porte australiarrarekin. Konforme ez, eta Suitzako Itzulian ere euren agintea inposatu zuen Richard Carapaz ekuadortarrak, *The Empire* INEOS Inperioko kidea hori ere. Gerra bat izango da, Inperioa sututa eta zauritua sentitzen da eta Galiako ez, Esloveniako Asterix eta Obelix-en aurka egin nahi du, Pogacar eta Roglic-en aurka, bi erreboltari horiek lapurtu ziotena berreskuratzeko. Alegia, Frantziako Tourra, La Grande Boucle, egutegi lasterketa onenaren erreinua.

Dave Brailsford managerrak gehiago nahi du, dena. Ugazaba zorrotzenen pare, ez da konformatzen inoiz, eta talde puska osatu du Tourrari begira. Lau izen horiek ikusita edozein beldurtuko litzateke, lauetako edonork irabaz baitezake Tourra. Hiru itzuli handiak irabazitakoak dira: Tao Geoghegan Hart, Carapaz eta G Geraint Thomas galestarra. Porte koska bat beharago dago, baina iaz hirugarren egin zuen, bere lehen podiuma, eta erlojupekoan dauden kilometro kopuru handiak, ia 60 kilometro, mesede egin diezaiolke. Inperioak izango ditu morroi onenak: Castroviejo, Luke Rowe, Kwiatkowski eta Van Baarle.

Eta parean ba bi erreboltari esloveniarrak, Inperioari aurre egiten ausartu direnak. Roglicen arrastorik ez dago Euskal Herriko Itzuliaz geroztik. Pogacar gaztea nahieran ibili da bere herriko itzulian. Iaz inor ez zen ausartu biko horri aurre egiten. Pogacar-ena urte bateko kontua ote den, edo dinastia baten hasiera... Hain da liraina eta sendoa bere ibilera, eta bere gazte-

tasuna... Roglicen inguruan zalantza gehiago dago, dagoeneko ez baita ume moko bat. Baina gaia dauka, eta erlojupekoetan gatza, galanta. Eta nor gehiago gonbidatu daiteke festara? Ba inor gutxi. Miguel Angel Lopez, akaso, edo Frantziako bi enfant terrible-ak: Julien Dartañan Alaphilippe eta David Gaudu bretoia.

Ibilbidea epela da... Erlojupeko asko eta mendia... Mendi selektibo gutxi. Ez konparatu Giroarekin, hango etapa nagusia eguraldi txaragatik bertan behera geratuta ere. Alpeetako bi etapen 150 kilometro dituzte, min handia egiteko motzak. Mont-Ventoux bitan igoko dute, baina bukatu lautadan. Andorra eskasa da oso, Envalira igota ere. Saint-Gaudens-en ihesaldia iritsiko da helmugara, eta 17. etapa, berau igotzaileek hausteko bakarretakoa: Muret-Col du Portet, bidean Peyresourde, Val Louron eta Portet, 16 kilometro %8.7ko batez beste-korekin, helmuga 2.215 metro-ra. Hurrengo egunean Tourmalet eta Luz Ardiden, baina 130 kilometro ziztrin...

Eta akabo. Erlojupekoa eta Paris. Zozo samarra, baina azken urteetako tendentzia baieztatzen duena. Etapa gogor-gogorrik ez mendian, eta aurren erlojupeko kilometro dezente. Errepidea epaile, noski. [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) atarikoan kontaktuko dugu eguneroko, etapa bukatu eta berehala.

**LASTERKETAREN JARRAIPENA EGIN AHAL IZANGO DA WWW.AIURRI.EUS WEBGUNEAN**



Jon Iturria, Urnieko Idiazabal kalean duen negozio berrian. AIURRI

## ‘Zure bike’ bizikleta denda ireki du Jon Iturriak

**TXIRRINDULARITZA** Urnietako Idiazabal kalean dago, Guria tabernaren parean; Urnietak aspaldi zeukan gabezia betetzeko asmoa du Iturriak. Herriko txirrindularia dendara hurbiltzea nahi luke, ondoko herrietara joaten ibili gabe

### Andoni Urbistondo URNIETA

Tabernari eta enkargu egile dabil aspaldi Iturria amak Andoingo Bazkardo auzoan daukan Irrintzi taberna ezagunean, baina egun batzuk atzera bere pasioa denari atea ireki nahi dio Jonek: bizikleta denda ireki du Urnietan, herriko komertzio gehienak pilatzen diren Idiazabal kalean. Amets bat du, erron-

ka bat: etorkizunean bizikleta konponketa izatea bere ofizioa. Jakin badaki ez dela samurra izango, eta horregatik ordu batzuk sartzen jarraitzen du amaren tabernan. Denda zabalik du dagoeneko, eta bizikletak konpontzera alboko herrietara joaten diren bizilagunak aurrerantzean Zure bike dendara hurbiltzea nahi luke.

Zergatik, bada, bizikleta denda, orain? “Pandemiaren kontuarekin etxean denbora asko pasa dut, taberna itxita zegoelako, eta buruari buelta asko eman dizkiot, taberna utzi eta beste lanbideren batekin bidea egin ote nezakeen. Mekanikari aritu naiz urtetan, talde askorekin, eta agian beranduago garatzeko zen ekimen bat au-

rteratu egin da”. Momentuz bi lanbide partekatzen segitzen du Jonek: “Irrintzi tabernan aritzen naiz goizeko lehen orduan, Andoainen, seietatik bederatzia arte edo, amari laguntzen, enkarguak egiten, gauzak eskatzen eta beste. Gero dendara etortzen naiz, eta goiz eta arratsalde egoten naiz, bulegoko ordutegiarekin”.

Iturriaren ama jubilatuta egin da epe ertainean. “Jubilatu bitarte bi lanak partekatzea da asmoa, baina lehentasuna bizikleta dendarekin aurrera egin badezaket, bertan jarraituko nuke”. Bizikleta gustuko dudalako ireki omen du denda. “Tabernako lanak bukatuta beti garajeen aritzen nintzen, batek edo besteak eskatutako mesedeak egiten, bizikletak konpontzen, eta mesede horiek lan bilakatu ditut, dendan eta tailerrean”. Iturriak ez du, momentuz, halako negozio aurreikuspenik egin. “Ez dakit zenbat jende etor daitekeen. Hilero zein gastu asumitu dezakedan kalkulatu dut, eta horri aurre egiten diodan bitartean, aurrera jarraituko dut. Badakit lehen hiruzpalau hilabeteak nahiko gogorak izango direla. Inbertsio baten modukoa da. Ondo ateratzen bada, aurrera. Ateratzen ez bada, kitto”. 8.000-10.000 euro inguruko inbertsioa egin du denda ireki ahal izateko.

### ‘Zure bike’, Idiazabal kalean

Honatx zergatia: “Abizenarekin hasi ginen. Iturria abizen eza-guna da, anaiagatik eta tabernagatik. Iturria bikes pentsatu genuen, edo Iturria bizikletak, errazena. Gantxo handirik ez zuen, ordea. Orain modan dago



ingelesezko izenak jartzea negoziari. Nik *tu bicicleta* leloa ikusita neukan nonbait, eta azkenean hala ateratu zen, zure bike izena”.

Martxoan hasi zen lokala prestatzen, eta aste eta erdi darama irekita. Tailerra izango omen da negozioaren bizkarrezurra. “Piezekin eta beste larri samar gabiltza, bizikletak halako boom bat ezagutu duela-ko pandemiarekin, baina nik tailerreko lanekin irauteko asmoa dut: kableak, kubiartak, balaztak, bizikleta puntuan jarri, horrelako gauzak. Norbaitek bizikletaren bat erosi nahiko balu ere bitartekari lana egin dezaket marka batzuekin. Alegia, aholkuak eman erosleari, nik eskatu eta ekarri”. Garbi dio, dena den, bizikleta denda bateko arima tailerra dela. “Negozioa egiteko modu azkarraren bizikletak saltzea da, baina zure bike denda txikia da. Ezin dut bizikletarik erakutsi, edo salgai jarri”.

Denda toki onean dago, Idiazabal kalean, Guria jatetxearen parean. Apartatzeko tokia ere badu atarian, eta kiroldegiko kalean ere tokia soberan egoten omen da. “Nahiko eskura dagoela esango nuke, eroso da etorri nahi duenarentzat”, dio Iturriak. Esperantza badu, herrietarrek hurbiltzeko: “Bizikleta konpondu nahi duenak normalean herriko dendara etorri behar luke, eta hala egin dezan saiatuko naiz, zerbitzu ona emanda. Pare bat bezero etorri zaizkit, dagoeneko, orain arte bizikleta konpontzeko Donostia, Hernani edo Andoainera joan behar zuten, eta orain etxetik pauso batera dauka denda”.

Hala bedi!

## Pablo Izagirre goi mailako txirrindularia izan zena zendu da

**TXIRRINDULARITZA** 1954an Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapeldun izan zen; Espainiakoan hirugarren

### Xabier Lasa ANDOAIN

Pablo Izagirre Areta bidegilea izan zen txirrindularitzaren historian. Baldintza kaskarrekin neurrigabeko zaletasunarekin aurre egitea egokitu zitzaion, 1950eko hamarkada hartan. Egin kontu,

proba ofizialetan, txirrindulariek eurek konpondu behar izaten zituzten gurrpil zulaketak, eta tubularrak bizkarrean eraman behar izaten zituzten. Lasterketetara, maiz, etxetik bizikletan joaten zirela aitortu izan zion

Izagirrek Aiurriri, 2009ko uztai-lean eskaini zion elkarrizketan. Sprinetan maisu zen, eta 1954an Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelak jantzi zituen. Bartzelonan jokatu zen Espainiako txapelketan hirugarren sailkatu zen. Ogibidea ez zuen apartean bilatu. Bizikleta konpontzailea izan zen, eta Etxeberrieta auzoan bertan zabaldu zuen tailerra. Adinean aurrera joan arren bizikletari makina bat pedalkada ematen jarraitu zuen, Leizaur taldearekin batera.



2009an Langara emaztearekin batera Etxeberrietako omenaldian. AIURRI



Lasterketa ugari irabazi zuen, 1950eko hamarkadan. IZAGIRRE-LANGARA



UKE

## Urnietarren hausnarketa

**ESKUBALOA** Egoera epidemiologikoak buruhauste ugari sortu ditu. Urnietako eskubaloi taldeak eskerrak eman dizkio Udolari alderdi ekonomikoan laguntzeagatik. Hala ere, penatuak daudela aitortu dute, hainbat taldek partida gutxi jokatu dituztelako. Bestalde, herritarren babes aziparratu eta seniorren eta jubenilen lau taldeak goraiatu ditu UKEk.

## Zumeatarrakoak lehia bizian

**TRIATLOIA** Aimar Sukunza eta Nagore Arizaga Portugaleten izan ziren Espainiako Sprint Triatloi txapelketarako txartela eskuratzeko. Junior mailan Sukunzak maila ona erakutsi zuen eta 30. postuan sailkatu zen. Emakumezkoen elite mailan Arizagak 45. postua eskuratu zuen. Biak ala biak, sasoi onean daudela erakutsi dute.



ZUMEATARRA



AIURRI

## Futbol kanpusean izen-ematea

**FUTBOLA** Euskaldunak futbol kanpusa antolatu du 2009-2012 urte bitarteko gazteentzat. Izena emateko aukera egongo da ekainak 30era arte. Uztailaren 26tik 30era izango da kanpusa eta txanda bakarra egonen da, beraz, ahal bezain lasterren izena ematea gomendatzen da. Prezioa 75 eurokoa da.



Julen Loitegi urnietarra. UTS

## Loitegik profesional mailan egin du debuta

**ERREMONTEA** Loitegik ezin izan zuen garaipena eskuratu, baina maila ona erakutsi du

**Erredakzioa URNIETA** Juaneneak eta Barrenetxeak San Fermin Torneoan aurrerapauso garrantzitsua eman dute, Ansa II eta Larrañagari irabazi ostean (30-26). Partida orekatua izan zen lehen tantotik, baina Juanenearen pilota erakustaldiak partida isteko balio izan zuen. Bigarren norgehiagoka Murgiondo eta Loitegiren debutarekin hasi zen. Jardunaldiko hirugarren partidaren estreinatu ziren profesional mailan. Murgiondok, Goikoetxea lagun zuela, debuta gogoangarria eduki zuen Loitegi eta Zubiri gaintuta (30-24). Lau pilotariek maila handia erakutsi zuten. Hurrengo partidak uztailaren 1ean jokatu dira.



Oriamendi Eskola Txapelketa irabazi zuen, debuta egin aurretik. UTS



LETE

## Arraun olinpikoan podiuma

**ARRAUNA** Ur Kirolak taldeko jubenil mailako arraunlariek zilarrezko domina eskuratu dute Espainiako txapelketan. Boskotean, gainera, eskualdeko bi kide ditugu: Maddi Elizasu andoainarra eta Eneko Lete urnietarra. Arraun olinpikoa banku mugikorren praktikatzen den kirol jarduer da. Euskal Herrian oso ezaguna ez bada ere, mundu zabalean aski ezaguna da. Kirol olinpikoa da.

## Bizkaiko errepideetan

**TXIRRINDULARITZA** Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak denboraldia osatzen ari dira, hango eta hemengo lasterketetan. Kadete mailako mutilak Txuma memorialean parte hartzen aritu ziren, hiru etapaz osaturiko lasterketan. Ez ohikoa da, maila horietan. Erandio, Leioa eta Berangon amaitu ziren etapak. Jubenilak Antzuolan aritu ziren.



ANDOAINGO



LEIZARAN

## Denboraldi berriari begira

**ESKUBALOA** Datorren denboraldiari begira izena-emateko epea zabalik du Leizaran kirol elkarteak. Ekainaren 30era bitarte zabalik dago epea, beraz. Infantil (2008-09), kadete (2006-07), jubenil (2004-05) eta senior mailakoak (2003 eta lehenagokoak) deitu dituzte. Izen-ematea: Leizaraneskubaloia.com.

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 24

**ANDOAIN Dantza**

Axeri Dantza emanaldia.  
12:00, Ondarreta.

**ANDOAIN Bertso saioa**

Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Agin Laburu, Ane Labaka, Miren Artetxe eta Aner Peritz. Gai-jartzailea: Unai Ormaetxea.  
13:00, Ondarreta.

**ANDOAIN Kontzertua**

Mikel Urdangarin zuzenean ariko da, "Izurdeen lekua" diskoa aurkeztuz.  
21:30, Ondarreta.

**URNIETA Zerbitzuak**

Gasze Informazio Puntua, udako ordutegia: 10:30-13:00.  
Udako ordutegia.

Kiroldegiko eta Udal igerilekuko txanda on-line har daiteke.  
Urnieta.eus, Urnieta APP.

## OSTIRALA 25

**URNIETA Antzerkia**

"Gora Kasetel!" antzerkia eta musika ikuskizuna kalean. Euskaraz.  
18:00, Etxeberri plaza.

**ANDOAIN Haur ikuskizuna**

"Piraten istorio bat".  
12:00, Ondarreta.

**ANDOAIN Kontzertua**

Chill Mafia eta Dupla taldeak zuzenean ariko dira. Soinu eta estilo berritzaileak.  
19:30 / 21:30, Ondarreta.

**URNIETA Aurre-matrikulazioa**

2021-2022. ikasturtean euskara ikasteko aurrematrikulazio-epea zabalik dagoela adierazi dute AEK euskaltegitik.  
urnieta@aek.eus / 662 338 747.  
Azken eguna: Ekainak 25.

## LARUNBATA 26

**ANDOAIN Kontzertua**

Soinuak Musika Eskolaren ikasturte amaierako emanaldia. Eta, era berean, agurreko emanaldia.  
11:30, Bastero.



Urki dantza taldea. AIURRI

**ANDOAIN Euskal dantzak, San Juan giroko egunetan**

Urki dantza taldearen emanaldia, San Juan jaietan ohiko zuten moduan.  
Ekainak 27, igandea. 12:00, Bastero.

**ANDOAIN Dantza**

Joseba eta Bakartxo dantza akademiaren emanaldia, ikasturte amaierakoa.  
13:00, Bastero.

**LEITZA Desafioa**

Gabirondoren eta Zalduaren artekoa. Sarrerak salgai Erratzun, Manterola Anaia pentsu dendan.  
17:30, Martin Borda baserria.

## ASTEAZKENA 30


**ANDOAIN Kanpaina**

"Han edo hemen, erosi Andoainen" kanpaina bonoa erosi dutenek hilabete honetan zehar egin beharko dute erosketa. Bonoak azkar batean agortu ziren, eta orain horiek kontsumitzeko garaia heldu da. Hilabetearekin amaituko da aukera.  
Azken eguna: Ekainak 30.



andoainDARRA  
euskaraz

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Helduentzat:  
**Operacion Camaron**


Lar., 26. 19:30,  
22:00.  
Ig., 27. 19:30.

Astel., 28. 19:30,  
22:00. Ikuslearen eguna.

Haurrentzat:  
**Ballerina**  
Ig., 27. 12:00.  
Euskaraz.



## SINOPSISIA

**Ballerina**

**Zuzendaria:** Eric Warin, Eric Summer. **Herrialdea:** Frantzia-Kanada (2016). **Generoa:** Marrakzi bizidunak. **Iraupena:** 89 minutu.

**Ballerina euskaraz**

Gurasoak galdu ostean, bere jaioterriko Britainiako umezurtegi batean bizi den neskatoa da Felicia. Bere pasioa dantza da eta dantzari profesionala izatea du amets. Bere lagun Victorren

laguntzarekin ihes egin eta 1879ko Parisera bidaiatu du. Han beste pertsona baten itxurak egingo ditu Grand Opera House-ko ikasle gisa sartzeko eta, horrela, nahi duen bizitza izateko.

## SINOPSISIA

**Operacion Camaron**

**Zuzendaria:** Carlos Theron. **Aktoreak:** Julian Lopez, Natalia de Molina, Carlos Librado, Miren Iburguren, Julian Villagran, Paco Tous. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Iraupena:** 105 min. **Generoa:** Umorea.

**Julian Lopez buru duen filma**

"Song 'e Napule" italiar filmaren remakea da. Sebas polizia arlote bat da, eta misio berezia betetzea eskatzen diote: Los Lolos flamenco-trap

taldean sartzea, trafikatzailer baten alabaren ezkontzan jo behar dutelako. Julian Lopez aktorea da protagonista nagusia. Umerez beteriko filma.



## Gazte Lokalaren logo berria

Galardi Haurreskolarekin egin bezala, Andoaingo Udalak Ludotekaren irudia biziberritzeko leiaketa antolatatu du. Deialdi honetara 12-18 urte arteko gaztetxoak deituta zeuden eta irabazlea Unai Peñalbo Arregi 16 urteko andoaindarra izan da. Aita Larramendi ikastolako DBH 4. mailako ikaslea da. Berak landutako irudia izango da, beraz, Ludotekaren ikur nagusia.



## Andoaindarrak nagusi

Euskarazko ikus-entzunezkoen sorkuntzarako Hi gazte! egitasmoak 250 gazteren lanak sustatu eta sareratu ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, egitasmo oso arrakastatsua izan da. Eider Elizondo Gomez, Ainhoa Georg Urtasun, Nerea Igarategui Casillas, Ariane Rodriguez Muñoz, Hanny Romero Uvidia, Saioa Valle Maria, Paula Vicente Arranz eta Alexandra Ayala Cruz ikasleek GoPro bana irabazi dute.

## ZORION AGURRAK



### Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

ANDOAIN

**Zorionak Malen**

Malenek 9 urte bete zituen ekainaren 18an. Ondo pasa zure egunean! Asko maite zaitugu! Etxekoak.

- [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **943 300 732**

## MERKATU TXIKIA

### ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 / 665 719 827**

51 m<sup>2</sup>. 61.000 euro. **687 851 740** Edurne.

### EROSI

Andoain inguruan **lur sail** eder baten bila nabil. Cesar Sistiaga. **620 720 694**

### LANA

Asteburutan lan egiteko zerbitzari bila gabilta. **Irunberri Kultur Elkarte**. Kale Nagusia, 39. Andoain

### MERKATU

### TXIKIAN

### PARTE

### HARTZEKO

[diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

**619 163 537**

Tel.: **943 300 732**

Bulegora etorrira:

**Arantzibia 4-5, behea. Andoain**

### SALGAI

**Lokal komertziala salgai** Andoaingo Juan Bautista Erro kalean.



# arruti

Datozen larunbat eta igandetan

"Pannis Quadratus" ogi berritua

Arrutin salgai ENKARGUZ

943 593 777

Zumea 18, ANDOAIN



## LAN ESKAINZA

Esperientzia duen pertsona euskalduna behar dugu Andoaingo kafetegi batean

665  
704  
126



# GIPUZKOAK BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000  
gipuzkoarrei esker,

**Europar  
desberdintasun  
maila txikienetariko**

duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro

ETORKIZUNA  
ERAIKIZ

#GipuzkoarKonpromisoa